


Abenduak 3, Euskararen eguna



1- Zenbat hizkuntza dago munduan?

Badakigu munduan hizkuntza asko hitz egiten direla, baina zer gehiago dakigu gai honen inguruan?
Berehala ikusiko dugu!

1.1- Erantzun ondorengo galdera hauek talde txikitan eta komentatu gero ateratako ondorioak.



- Zenbat hizkuntza dago munduan? Eta zein hizkuntza ezagutzen dituzue?
- Zein dira munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzak?
- Zuen ustez munduko estatuaren mapa (mapa politikoa) eta hizkuntzen mapa bat datoz? Zergatik?
- Hizkuntza guztiek garrantzi berdina al dute munduan?

1.2- Talde guztiek hitz egindakoa partekatu ondoren, **bideo** hau ikusi eta talde txikian eman dituzuen erantzunak zuzendu eta informazioa osatu. (Bideoa: *Euskararen eguna 1*)

2- Euskararen tamaina

2.1- Orain Kike Amunarrizek egindako galderari helduko diogu: *Munduan 7.000 hizkuntza inguru daude, baina zein da euskararen lekua hizkuntza horien guztien artean?*

Munduan 7.000 hizkuntza inguru daudela jakinda, 0tik 10erako eskala batean, zein zenbakitan kokatuko zenukete euskara hiztun kopuruaren arabera?

Galdera hobeto ulertzeko, ikusi **bideoan** nola formulatu zuen Kikek Eskoriatzan, kale-inkestari ekin aurretik! (Bideoa: *Euskararen eguna 2*)

Orain, talde bakoitzean adostu beharko duzue non kokatzen duzuen euskara eskala horretan eta zergatia arrazoitu. Talde bakoitzak zein zenbakitan kokatu duen esan ondoren, talde handian, gelako datu guztien batez bestekoa aterako duzue, zein zenbakitan geratzen den jakiteko.



2.2- Eta orain **bideoa** ikusi eta deskubrituko dugu, Kikeren ahotik, zein den euskararen kokapena munduko hizkuntzen artean (Bideoa: *Euskararen eguna 3*). Gelako batez bestekoa asko urrundu al da Kike Amonarrizek emandako emaitzatik? Espero al zenuten emaitza hori? Zerk harritu zaituzte, ezerk harritu bazaituzte?



2.3- Zergatik ikusten dugu geure burua hain txiki?

Eskalaren inkesta egin dugun leku guztietan, herritarrek oso posizio baxuan kokatu izan dute euskara. Hori izan al da zuen erantzuna?

Bada, gizartean orokortuta dagoen uste hori aintzat harturik, eta taldetan bilduta, aztertuko duzue zergatik kaleko jendeak uste duen euskara, munduko hizkuntzen artean, dena baino askoz ere txikiagoa dela.

Ikus ezazue arretaz, beraz, Bilbon eta Eskoriatzan jasotako erantzunen **bideoa** eta zerrendatu itzazue jendeak emandako arrazoiak. Zerrenda osatu eta gero, pisuzkoenak edo arrazoizkoenak iruditzen zaizkizuenak aukeratuko dituzue, zergatiak azalduz. (Bideoa: *Euskararen eguna 4*)

Zergatik ikusten dugu geure burua hain txiki? Kaleko jendeak emandako arrazoiak:

.....

.....

.....

.....

.....

.....






.....

2.4- Euskara txikia den uste zabalduaren arrazoiiez galdetuta, Jon Sarasuak emandako erantzunaren **bideoa** ikusiko dugu, eta talde handian eztabaidatuko duzue ados zaudeten ala ez. (Bideoa: *Euskararen eguna 5*).

3- Euskararen osasun maila

3.1- Euskararen tamainari buruz jardun dugu orain arte, baina zein da euskararen osasun-maila munduko hizkuntzen artean? Galdera hau erantzuteko, UNESCOk egindako *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen Atlasera* joko dugu. Bertan, arriskuan dauden hizkuntzak sailkatzen dira, taula honen arabera zein multzotan kokatuko zenukete euskara?



Bizitasun-maila		Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa
	<i>arriskurik gabe</i>	Belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza eta belaunez belauneko transmisioak ez du etenik. >> <i>ez da Atlas-ean sartzen</i>
	<i>zaurgarria</i>	Haur gehienek hitz egiten dute hizkuntza, baina erabilera zenbait eremutara mugatuta egon daiteke (familia girora, adibidez).
	<i>arriskuan</i>	Haurrek jada ez dute ikasten ama-hizkuntza gisa.
	<i>arrisku nabarmena</i>	Aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideek bakarrik hitz egiten dute hizkuntza. Gurasoen belaunaldiekoek, ulertu badezakete ere, ez dute beraien artean erabiltzen, ezta seme-alabekin ere.
	<i>arrisku larria</i>	Hiztun bakarrak, aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak dira, baina gutxitan eta oso modu partzialean darabilte hizkuntza.
	<i>desagertua</i>	Ez da hiztunik geratzen. >> <i>Atlasak, 1950. urtetik aurrera desagertutako hizkuntzen erreferentzia dakar.</i>

Orain, taldean, euskara zein multzotan kokatuko zenuketen eztabaidatuko duzue, eta zergatik. Lan hori amaitzen duzuenean, UNESCOren sailkapenaren berri ematen digun **bideoa** ikusiko duzue, eta zuen aurreiritziak zuzenak diren konprobatuko duzue. (Bideoa: *Euskararen eguna 6*).

4- Zergatik ez dugu egiten?

4.1- Noiz, nola, norekin eta zein egoeratan egiten duzue euskaraz? Eta zeinetan ez? Bildu taldeka eta zerrendatu egoera horiek. Gero taldearen aurrean aurkeztuko duzue hitz egindakoa.

<i>Zein egoeratan, noiz, non norekin egiten duzu euskaraz?</i>	<i>Zein egoeratan, noiz, non norekin egin dezakezu euskaraz baina ez duzu egiten?</i>	<i>Zein egoeratan, noiz, non norekin ezin dezakezu euskaraz egin?</i>

4.2- Bigarren multzoko erantzunei erreparatuko diegu. Gure eguneroko bizitzan, euskaraz egin dezakegun hainbat egoeratan erdaraz egiten dugu. Gauza bera euskaraz dakiten pertsonekin.

Baina, ba al dakizue zein diren euskaraz egin ahal izateko bete behar diren baldintzak? Ikusi **bideoa** (Bideoa: *Euskararen eguna 7*).

4.3- Baina baldintza horiek guztiak beteta ere, batzuetan erdaraz egiten dugu. Zergatik ote? Horixe da jakin nahi duguna: euskaraz egin ahal izateko baldintzak betetzen direnean, zein dira erdaraz egitera eta euskaraz ez egitera eramaten gaituzten arrazoi nagusiak? Zein dira zureak?

Euskara ez erabiltzera daramaten arrazoiak zerrendatu dituzue. Ea SIADECO Ikerketa-taldeko Juanjo Allurrek egindakoarekin bat datorren. Ikusi **bideoa** (Bideoa: *Euskararen eguna 8*).

4.4- Orain erreparatuko diozu lehen zerrendatu dituzun egoeren erdiko multzoari: Zein egoeratan, noiz, non norekin **egin dezakezu** euskaraz baina **ez duzu egiten**? Eta aztertuko dituzu euskaraz ez hitz egitera eramaten gaituzten arrazoiak. Bi osagai horiek kontuan hartuta, konpromiso bat hartu, idatzi eta sinatuko duzu datorren astean betetzeko. Astebeteren bueltan ikaskideen artean komentatuko dituzue hatutako konpromisoa bete al duzuen. Konpromisoa errealia eta betegarria bada, errazagoa izango da huts ez egitea.

Idazki honen bidez, sinatzen duenak honakoa adierazi nahi du:

Nire euskara maila dela-eta posible badut ere, orain arte ez nuen / nintzen

Idazki hau sinatzen dudan momentutik aurrera, ordea, honako konpromisoa hartuko dut:

Eta konpromiso hau zintzoa dela bermatzeko, nire ikaskideen aurrean sinatuko dut.

Gasteizen, 2019ko abenduaren 3an
Sinadura:

